


46. ZENBAKIA. 2020

ELKARRIZKETA | **Idoia Peñacoba**. Mondragon Unibertsitateko idazkari nagusia

**“Rankingetan ondo kokaturik
agertzeak egunero egiten
dugun lana islatzen du”**



CLINICA BAVIERA

MIOPÍA - HIPERMETROPÍA - ASTIGMATISMO



Di adiós a tus gafas y lentillas

800€/ojo

1ª Consulta
GRATIS
(Valorada en 60€)

PROMOCIÓN VÁLIDA PARA UNIVERSIDAD DE MONDRAGÓN

BILBAO · Avda. Lehendakari Leizaola, 5
VITORIA-GASTEIZ · C/ Manuel Iradier, 33
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN · C/ Andia, 11

TELÉFONO GRATUITO
900 180 100
clinicabaviera.com

No acumulable a otras ofertas. 1ª consulta gratuita (valorada en 60€) para consultas preoperatorias de corrección visual por láser de miopía, hipermetropía, astigmatismo y presbicia. Desde 740€/ojo (antes 830€/ojo). Dto. de 90€/ojo. Promoción válida hasta el 31/12/2020. NRS CS2046. RPS: 09/16. Más info en www.clinicabaviera.com/promo

Idoia Peñacoba rankingei buruz

Unibertsitate rankingak unibertsitate bakoitzaren indarguneak azertu eta besteekiko alderaketak egiten dituzte. Zergatik ote da garrantzitsua Mondragon Unibertsitatearentzat hauetan azaltzea? Zeinetan hartzen du parte? Haei buruz sakondukodugure Idazkari Orokorrekin.



AURKIBIDEA

- 03 Editoriala
- 04 Berriak
- 10 Erreportajea
- 13 Iritzia
- 14 Elkarrizketa
- 16 Unibertsitatea & enpresa
- 20 Komunitatea
- 23 Agenda

Ikasturte hasiera berezi bat

COVID-19 gaitzaren eragina dela eta 2020/2021 ikasturtearen hasiera berezia izango zela alde aurretik genekien. Baina horretaz harago, beste motibo askoz positiboago batek ere berezi bilakatu du. Birmoldaketa lan luze baten ondoren, ikasturte berriaren inaugurazio ekitaldia Eskoriatzako Campuseko Dorleta eraikin berriaren burutu zen. Gainera, unibertsitateak aldaketez beteriko ikasturte bat du aurretik, besteak beste Bilboko Zorrotzaurre uhartean AS FABRIK espazio berria martxan jarriko baita. Ikasturteari irribarre egiteko arrazoiak baditugu.



muniversitas aldizkariaren 46. zenbakia OSOA ikus dezakezu gure webgunean.



muniversitas aldizkariaren 46. zenbakia EUSKARAZ ikus dezakezu gure webgunean.



Puedes acceder a la revista *muniversitas* número 46 en CASTELLANO en nuestra web.

ETENGABEKO HOBEEKUNTZA NEURTZEN

Mondragon Unibertsitateak formazio zentro bezala etengabeko hobekuntza du jomugen artean, eta hau argi izanik noizean behin begirada kompetenziaren jarduerara zuzentzea beharrezkoa da.

Alderaketa hauek egiteko tresna gisa Unibertsitate Rankingak sortu ziren 2003. urtean. Shanghai-ko Unibertsitatea izan zen mota honetako sailkapen bat egiten lehena, eta ordutik hona beste zenbait ageri izan dira. Baina benetan baliagarriak ote dira? Interesen arabera esan beharko dugu.

izaera kualitatiboago bat duten bestelako batzuk argitaratu dira, eta hauetan Mondragon Unibertsitateak badu zeresana.

Besteak beste, hauen artean Europako Batzordeak garatzen duen U-Multirank aurkitu dezakegu, 2020an 92 herrialdetako 1.800 erakunde baino gehiago ebaluatuz. Estatu mailan ere badira mota hauetako zenbait ranking: besteak beste CyD eta U-RANKING sailkapenak aurki ditzakegu. Lehenak Mondragon Unibertsitatearen zenbait alor aztertzen ditu, sailkapen orokor batean Estatu mailan 11. tokian kokatuz, eta era berezian ADE gradua nabarmenduz. U-RANKING sailkapenak, aldiz, Mondragon Unibertsitateak Ingeniaritzako graduatan duen indarrean jartzen du fokua. Horrez gain, arlo akademikoaz harago, unibertsitateen gardentasuna baloratzen duen 'Ranking de transparencia de las Universidades' sailkapenak ere garrantzia du, unibertsitateek arlo estrategikoei buruz argitaratzen duten informazioa baloratzen duena. Honetan ere azken urteetan balorazioa oso positiboa izan da.

Baina rankingez harago, badaude ere unibertsitateen jarduna baloratzeko bestelako tresnak, eta horiek ere gertu ditugu. Berezi ki LANBIDEk unibertsitatean goi mailako ikasketak egindako pertsoniei egiten dien jarraipenean enplegarritasun datu altuak zoriontzeko modukoak dira, Mondragon Unibertsitatearen ikasketa eredua sendotzen baitute.

Hastapenetan argitaratutako rankingak erabat absolutuak ziren, eta tamaina txikia duen unibertsitate batek, gureak kasu, ez du hauetan Harvard, Cambridge edo Stanford bezalako erraldoiekin lehiatzeko inolako aukerarik. Hau kontuan izanik, azken hamarkadan aldagai absolutuetatik aldendu eta

LANBIDEk unibertsitatean goi mailako ikasketak egindako pertsoniei egiten dien jarraipenean enplegarritasun datu altuak zoriontzeko modukoak dira.



Eraikin berriak espazio modernoak ditu.

Eraikin berria du Eskoriatzako campusak

IKASTURTE HASIERA EKITALDIAREKIN BAT EGINEZ, ERAIKIN BERRIA INAUGURATU DU HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAK. BIRMOLDAKETAK ERANTZUTEN DIO FAKULTATEAK SUSTATZEN DUEN HEZKUNTZA ERALDAKETA PROIEKTUARI.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Ikasturte honetatik aurrera, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eraikin berria izango du Eskoriatzako campusean. Urtebeteko obra eta prozesu parte-hartzaile baten ondoren, irailaren 18an, inauguratu da Dorleta eraikin berria. Dorleta eraikinaren birmoldaketak erantzuten dio Fakultateak abian jarritako hezkuntza eraldaketa proiektuari. Izan ere, proiektu pedagogiko berritzaile hori izan da prozesuaren ardatz nagusia. Obrarekin lortu dira sorkuntzarako, esperimentaziorako eta ikerketarako espazio berriak. Hala, barrualdea berritu da (1976an eraiki zen Dorleta) eta espazio berriak sortu dira fatxada gehitutako eranskinari esker. Gainera, 1.800 metro karratuko oinplanoko lokal berri bat jaso da eraikinaren ondoan eta inguruko espazioak birmoldatu dira. Handitze eta birmoldatze proiektuak 6 milioiko inbertsioa izan du.

Begoña Pedrosa dekanu ohiaren hitzetan, proiektuaren helburu izan dira, batetik, “espazioetatik hasita, unibertsitateko esperientzia bizi-esperientzia aberasgarria izaten laguntzea” eta, bestetik, “Fakultatea ikasteko, hausnartzeko, esperimentatzeko eta sormena garatzeko leku bat bezala ulertzea.” Gainera, Pedrosaren hitzetan, “berebiziko garrantzia hartu dute diseinu eta eraikitze prozesuan irisgarritasunak, erosotasunak eta eraikinaren beraren jasangarritasun energetikoak”.

Dorletako eraikina



Dorleta eraikin berrituan kokatuko dira, beste batzuren artean, ikasgelak, hainbat zerbitzuetako bulegoak, biblioteca, kafetegia eta Fakultateko KoLaborategia, Gizarte Digitalerako Hezkuntza eta Komunikazioa laborategia. KoLaborategiaren helburua da etorkizuneko joerak detektatzea eta sustatzea hezkuntza digitala. Berritapenean erabilitako materialei dagokionez, eraikinak uztartzen ditu hainbat material: egurra, burdina, kristala, lehenagoko eraikinaren aztarnak... Gainera, landara ugari landatu dira bai, barnealdean, fatxadan eta baita ere, eraikinak dituen hainbat terrazatan.

Ikasturteak hasiera ekitaldi berezia izan zuen

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK ESKORIATZAKO CAMPUSEKO DORLETA ERAIKIN BERRIAN EMAN ZION HASIERA OFIZIALA COVID-19 GAITZAK BALDINTZATUTA AURREIKUSTEN DEN 2020/2021 IKASTURTEARI.



Ikasturte hasiera ekitaldiaren agurra.

Mondragon Unibertsitatea | Aurtengo ikasturte hasiera ekitaldiak orain arte ezagutu dugunetatik gutxi izan zuen. Ohi baino pertsona gutxiago bertaratu ziren Eskoriatzako Campuseko Dorleta eraikin eraberrituan izandako ekitaldira, eta hauek guztiak musukoa jantzita. Izan ere, abiatu berri den 2020/2021 ikasturtea Covid-19 gaitzak erabat baldintzatutako ikasturtea izatea espero da. Hala ere, unibertsitateak azken urteotan erakusten ari den joera konfirmatuko duen ikasturtea izatea ere espero du; 2020-2024 Plan Estrategiko berriaren baitan ikasle gehiago prestatuz, profesionalen zerbitzu hobea emanaz eta ezagutza handiago eskainiz. Zentzu honetan, unibertsitateak 1.550 ikasle berri izango ditu ikasturte honetan, joan den urtean baino %5,5 gehiago. Horrez gain, azken lau urteetan 24.000 profesional baino gehiagorentzako eskaintza izan du eta %29ko hazkundea Ikerketa eta Transferentziaren esparruan. Gainera, ikasturte berri honetan zehar Bilbao AS Fabrik espazioa estreinatuko da Zorrotzaurren, eta Dorleta eraikin berriarekin batera Mondragon Unibertsitatearen eraberritzearen aurpegi izango dugu.

Ezohikoa bezain berezia

Zalantzarik gabe hasiera ofiziala, Eskoriatzako Dorleta eraikin berriaren inaugurazio ofizialaren baitan egin izanak ikasturte akademikoaren hasiera xarma berezi bat eman zion azken honi,

unibertsitateko kolektiboa eraikin eraberritua ikusteko irrikaz baitzegoen. Horrez gain, azken sei urteetan Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoko izandako Bego Pedrosaren azken ekitaldi ofizialetako bat izan genuen, Eusko Jaurlaritzan Hezkuntza Sailburuorde karguari zin egin aurretik; eta berarekin batera Vicente Atxa errektorea, Iñigo Urkullu lehendakaria, Idoia Peñacoba Mondragon Unibertsitateko idazkari nagusia, Nagore Ipiña Ikerketa eta Transferentziako zuzendari eta doktorea, Jokin Bildarratz Hezkuntzako sailburu berria eta Mikel Álvarez Mondragon Unibertsitateko presidentea izan ziren.

Konpromiso irmoa

Vicente Atxa errektoreak nabarmendu zuen ikasturte bakoitza erronka bat dela Mondragon Unibertsitatearentzat ikasleekiko eta gizartearekiko konpromisoa are gehiago berritzen baita gaur egun bizi duguna bezalako egoeretan. Bere hitzetan, "lan egiten jarraitzen dugu, unibertsitate berritzaile gisa, nazioartean erreferente bihurtu, eredu izan eta munduko onenekin lehian jarduteko". Bide honi jarraiki, graduatuen enplegarritasun-tasa altuak, herrialdearen beharretara bideratutako prestakuntza eta titulu berriak izango dituen unibertsitatea egonkortzea da Mondragon Unibertsitatearen helburua.

Material iraunkorrarekin eginiko zapatilak

NURIA ROBLEÑO ETA SOFÍA MACHÍN EKINTZAILEEK ROYO KALERATU DUTE, INDUSTRIAREN ESTANDARRAK ALDATZEA BILATZEN DUEN EKOIZPEN IRAUNKORREKO OINETAKO MARKA.



ROYOk modaren kontzeptua aldatu nahi du.

Enpresagintza Fakultatea | Asiara eginiko bidaia batek Nuria Robleño eta Sofia Machín modaren industria iraultzera inspiratu zituen. Eibarko bi ekintzaile hauek moda maite dute, baina aldi berean, sektore hau munduko bigarren industria kutsatzaileena dela ere badakite. Horregatik, Nuriak, bere LEINN formaziotik abiatuta eta Sofiarekin batera, Royo kaleratzea erabaki zuten; anana, artoa, beste elikagai batzuen hondakinak, birziklatutako botilak, kautxoak, birziklatutako neumatikoak edo kalamu moduko material iraunkor eta biodegradarriekin ekoiztutako zapatila marka.

Markaren helburua diseinua zainduz eta produktu ez iraunkorrak duten materialen kalitatearekin moda iraunkorra egitea posible dela erakustea da. Ekimenak sektoreko aitorpena jaso du eta "On ekin", Ekigunek bultzatzen duen enpresa ideien lehiaketako zazpigarren edizioan finalista izatera iritsi dira.

Ekintzailetasuna koronabirus garaian

Robleño eta Machín enpresa ekimenean eragina izan du COVID-19 pandemiak eta beraien esanetan, "beste modu batera lan egitera derrigortu ditu". Markaren merkaturatzea konfinamendu garaian egin zen eta fabrikara eskaerak egiteko faseak, esaterako, eragin handia jasan zuen alarma egoeratik. Zentzu honetan, ekintzaileek diote momentu hura Royo marka irudia lantzeko aprobetxatu zutela, sare sozialen bidez honen berri emanaz eta webgunea landuz <https://royobrand.com/>.

Industria Diseinuko Ingeniaritzako ikasleak Valentzian sarituak

ONTZI ETA ENBALAJEEN DISEINU ETA IRAUNKORTASUNEN SARI NAZIONALEN XI. EDIZIOAN ERRONKA EZBERDINETAN BI SARI NAGUSI ETA BI ACCESIT ESKURATU DITUZTE.



Natra enpresaren erronka irabazi duen diseinua

Goi Eskola Politeknikoa | Ontzi eta enbalajeen berrikuntzako clusterrak urtero antolatzen duen *Ontzi eta enbalajeen diseinu eta iraunkortasuneko sari nazionalek* XI edizioa izan dute aurtengoa, eta bertan Mondragon Unibertsitateko ikasleak sarituak izan dira. XI. edizio honetan 26 unibertsitate ezberdinetako 600 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute, eta Logifruit, Industrias

Alegre, Natra, Apisol eta Eurobox enpresek planteatutako erronka ezberdinetarako irtenbideak proposatzea izan da lehiaketaren muina. Zentzu honetan, Goi Eskola Politeknikoko Industria Diseinuko Ingeniaritza Graduko hirugarren mailako ikasleek Natra eta Apisol enpresen erronketarako soluzioak proposatu zituzten.

Bi sari nagusi eta bi accesit

Natra enpresak Japoniako merkaturako bonboien 'unboxing experience'-a hobetzeko ontzi iraunkor bat diseinatzeko erronka planteatu zuen. Erronka honi erantzunez Cristina Melendez, Ander Otegui eta Endika Zearra ikasleek garatutako proiektuak Gifting kategoriara bideratutako produktu bat aurkeztu zuten, sari nagusia eskuratuz. Publiko objektiboa aintzat harturik, Japoniako tradizioetan oinarrituz hiru koloretako bilgailua sortu zuten, kolore bakoitza sentimendu positibo batekin lotuz. Bestalde, Amaia Uriarte eta Uxue Molinuevok garatutako geometria bakarreko bonboi kutzak accesita eskuratu zuten.

Apistol enpresak, aldiz, ezti ontzietarako kontzeptu berri baterako soluzio bat eskatu zuen, eta aurkeztutakoen artean Andrea Arruti, Julen Hernandez eta Hugo Ostizak landutako IZADI proiektuak eskuratu zuten sari nagusia. IZADIk iraupen luzeko ontzi bat aurkeztu du, eta ontzi barruan kokatzen den dosifikatzaile bati esker ezta zerbitzatzen bukatzean ontziaren kanpoaldea ez da zikinduko; hortaz erabiltzaileak berau garbitzeko beharrik ez du izango.

Bestalde, Mario Marco, Garazi Otxandorena eta Jone Pizen HONEY EXTRUDER proiektuak erlauntzetan inspiratuta dagoen dosifikatzaile berritzaile bat aurkeztu zuen. Lan honek accesit bat eskuratzeko balio izan zien.

Basque Culinary World Prize 2020 saria José Andresentzat

Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea | José Andrés chefak irabazi du 2020ko Basque Culinary World Prize saria, COVID-19aren pandemiak sortutako erronkei erantzuteko izan duen gaitasuna balioan jarritz. Andresek argi eta sendo islatzen du nazioarteko sukaldaritzaren inplikazioa COVID-19aren garaian, krisiaren aurrean jarduteko erakutsi duen indarra, azkartasuna eta eraginkortasuna sektorea suspertzera bideratuz. Andresek, World Central Kitchen (WCK) erakundearen bitartez, inoiz ez bezala mobilizatu ditu sukaldaritzaren munduko profesionalak, eta WCK-k paper garrantzitsua bete du larrialdi egoera desberdinetan;

Merezitako aitortzak

Salbuespenezko egoera izanik, Andrés irabazleaz gain beste 10 aipamen berezi ezagutarazi ditu epaimahaiak, hauek krisialdi garaian sektoreari egindako ekarpena nabarmentzeko asmoz. Ildo horretan, pandemiaren ondorioak arintzen saiatu diren sukaldariek egin dituzten lanak goraiatu nahi izan dira. Aipamen berezi hau jaso duten 10 chefak Mariana Aleixo, Elijah Amoo Addo, Greg Baxtrom, Simon Boyle, Tracy Chang, Ghetto Gastro kolektiboa, David Hertz, Ed Lee, Juan Llorca eta Nicole Pisani izan dira.



Pandemiak sortutako erronkei erantzuteko izan duen gaitasunagatik izan da saritua.

Mondragon Unibertsitateko podcast-a Spotify-n entzungai

SPOTIFY AUDIO EDUKIEN PLATAFORMAN EZAGUTZA POADCAST BIDEZ ZABALTZEKO KANAL BERRIA UNIBERTSITATEAK DIGITALIZAZIORAKO DITUEN ERRONKEN BAITAN KOKATZEN DA.



Gure podcast-a Spotify-n entzungai dago dagoeneko.

Mondragon Unibertsitatea | Digitalizazioa Mondragon Unibertsitatearen 2021-2024 urteetarako Plan Estrategikoaren zutabegarrantzitsu bat den heinean, arlo honetan sakontzeko zenbait ekimen jarri dira martxan. Horietako bat da Spotify audio eduki plataforma digitalean zabaldutako podcast kanala. Mondragon Unibertsitateak aurrera eramandako sormen ariketa interesgarri hau publikoarekin partekatzea da kanal hau irekitzearen helburu nagusia, digitalizazioak eskaintzen dituen abantailak baliatuz. Urteak dira Mondragon Unibertsitatea digitalizazioaren esparru guztietan lanean ari dela, modu honetan hezkuntzaren zein komunikazioaren ikuspegiak euskarri digital batekin uztartzea posible da.

Entzulearen arabeko edukiak

Unibertsitateak ezagutza sortzeko gaitasuna duenez, arlo ezberdinetako edukiak aurkitu ahal izango dira plataforman. Gainera, podcast-etan orokorrean eta Spotify plataformak eskaintzen dituzten aukerak baliatuz, publikoak nahiago duen gaiari buruzko pieza kontsumitu ahal izango ditu. Gauzak horrela, gaur egun kanalean aurki daitezkeen gaiak hurrengoak dira: Ekintzailtza, Lidergoa, Kooperatibismoa, Herrigintza, Finantzak, Datuen analisia, Teknologia / ingeniariaritz, Zibersegurtasuna, Robotika, Energia, Diseinua, Hezkuntza berrikuntza, Gastronomia, Ekonomia Zirkularra, Serbituzazioa, Komunikazioa eta Digitalizazioa.

Gastronomia eraldaketa tresna gisa

ERRONKAZ BETERIKO GARAIETAKO GASTRONOMIAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN NAZIOARTEKO JARDUNALDIA ANTOLATU DUTE BASQUE CULINARY CENTER ETA FRUTOK.



Jardunaldiaren irudia.

Basque Culinary Center - Gastronomia Zientzien Fakultatea | Basque Culinary Centerrek FRUTO elkartearekin batera ekimen berezi eta paregabe bat eskainiko du azaroaren 19 eta 20an.

Esperientziak trukatzeko, ezagutza partekatzeko eta lan tresnak eskaintzeko helburuarekin nazioarteko online jardunaldi bat egingo da, mota guztietako publikoari zuzendua.

Hitzaldien eta tailerren bitartez, ekitaldiak sektoreko profesionalak ditu jomuga, eta hauentzat programazio erakargarri bat prestatu da. Besteak beste, ekonomia zirkularra, biodibertsitatea, food design, kontsumoa, giza antolakuntza eta hiriko ortu eta soroak bezalako gaiak jasotzen ditu.



Begoña Pedrosa fakultateko liburutegian.

Begoña Pedrosa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuorde izendatu dute

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuorde izendatu dute Begoña Pedrosa (Areatza, Bizkaia, 1975). Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa. Jokin Bildarratzek zuzentzen duen Hezkuntza sailean arituko da.

Begoña Pedrosa Filologia Ingelesean lizentziaduna da eta Hizkuntzalaritza Aplikatuan doktorea. Pedrosak 18 urte daramatza Mondragon Unibertsitatean lanean eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa izan da azken sei urteotan. Dekano moduan egondako urteetan, besteak beste, hezkuntza berrikuntza, eraldaketa eta digitalizazioa izan ditu ardatz. Gainera,

Pedrosak unibertsitateko gradu eta masterretako produktu akademiko berriak sortzea bultzatu du eta baita unibertsitatearen eta eskolaren arteko ikerketa kolaboratiboa sustatu ere.

Ikertzaile gisa nabarmentzekoak dira, beste batzuren artean, honako lan hauek: hizkuntza gutxituetako testuinguruetan eleaniztasunerako gaitasunen garapenari buruzkoak edota CLIL (Content and Language Integrated Learning) testuinguruetako estrategia pedagogikoei eta ikasleek hizkuntzen ikaskuntzarekiko dituzten jarrerari buruz egindakoak. Begoña Pedrosak lau hizkuntza dakizki: euskara, ingelesa, gaztelania eta katalana.

Tokiko komertzioa biziberritzeko *Kapsula*

NORA ORMAETXEA ETA AINHOA ORTIZ BILBOTAR EKINTZAILEEK KONFINAMENDU GARAIAN MARKA JASANGARRI, BEREIZGARRI ETA GARDENAK EZAGUTARAZTEKO ERAKUSLEIHO BIRTUAL BAT JARRI DUTE MARTXAN.



Erakusleho digitalaren itxura.

Enpresagintza Fakultatea | *La Kapsula* pasa den udaberrian bizitako konfinamenduan martxan jarritako erakusleho birtual bat da, moda, dekorazioa eta tokiko merkataritzak jasotzen dituen bestelako gaiak batzen dituena. Koronabirusak Bizkaiko merkataritzan izandako eragina arintzeko asmotan, Nora Ormaetxea eta Ainhoa Ortiz martinean eta komunikazioan espezializatutako bilbotar ekintzaileei beraien aletxo modu honetan jartzea bururatu zitzaion. *La Kapsula* Instagram profil bat bezala sortu zen, eta bertan tokiko ekoizleen produktuen berri ematen hasi ziren.

Instagramen izandako arrakastak ekimenaren itxuraldaketa ekarri zuen, jasangarritasuna oinarri duten ekoizleentzako 2.0 erakusleho bat bezala funtzionatzen duen webgune bat garatuz. Espazio digital honetan, markek beren produktuen deskribapen txiki bat eta argazki bat dituzte, eta erabiltzaileak klik egiten duenean, sinaduraren webgurena doa zuzenean.

Plataforma hau bertakoa den eta modu jasangarrian lan egiten duen edozein markari zuzendua dago, eta une honetan 10 bat bertan daude jada.

Enpresagintzan hasitako harremana

Bilboko Fakultatean LEINN gradua ikasten ari zirela ezagutu zuten elkar Ormaetxeak eta Ortizek, artisaun-lana eta diseinuarekiko zaletasunak berehala elkartuz. Biak kontsumo arduratsu eta lokalaren defendatzaileak direla aldarrikatzen dute. Besteak beste, Fashion Revolution mugimenduak urtero antolatzen duen taldeko kide izan dira biak, eta 'Slow Fashion' (kontsumo arduratsuen filosofia) joera aldarrikatzen dute.



Unai Ayala eta Maitane Barrenetxea ikerlariak.

Parkinsonaren garapena aurreikusteko ikerketa

GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO IKERLARI TALDE BAT ETA BIOCROCUS GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEKO IKERKETA INSTITUTUA PARKINSON GAIXOTASUNARI AURRE EGITEKO MODU BERRIAK AURKITZEKO ELKARLANEAN ARI DIRA. INBASIBOAK EZ DIREN TEKNIKEN BITARTEZ ERRETINA AZTERTUZ GAIXOTASUNA DETEKTATZEA ETA BERE BILAKAERA AURREIKUSTEA DUTE HELBURU, BILAKAERA PATROI BAT ERAIKIZ.

Goi Eskola Politeknikoa | Mondragon Unibertsitateko Biomedikuntzan adituak diren Unai Ayala eta Maitane Barrenetxea ikerlariak Parkinson gaixotasunari buruzko ikerketa bat abiatu dute ISS Biocruces Bizkaia Ikerketa Institutuko neurologo eta ikerlari nagusia den Iñigo Gabilondorekin batera.

'Aplicación clínica de la inteligencia artificial sobre imágenes de OCT de retina para la clasificación precoz y monitorización de pacientes con enfermedad de Parkinson' izena duen proiektuak hiru urteko iraupena izatea aurreikusten da eta doktore tesi bati ere lotuta dago. Proiektuaren muina gaixotasunaren diagnostiko eta pronostikoan sakontzeko gaitasuna garatzea da, eta horretarako erretina aztertzeko teknika berrietan jartzen da oinarria, OCT bezala ezagutzen dena erabiliz. Optical Coherence Tomography. OCT teknikaren bitartez Iñigo Gabilondoren lan taldeak beste ikerketa batzuetarako jasotako emaitzak erabiliko dira, eta baita nazioarte mailako biltegi ezberdinetatik eskuratzen diren milaka datu ere. Behin guzti hau biltzerakoan, Goi Eskola Politeknikoko taldeak irudien prozesaketarako algoritmoak apli-

katuz zenbait parametro aterako ditu, biomarkatzaileak alegia, teknika ezberdinak eta adimen artifiziala aplikatuz gaixotasunaren diagnostiko eta pronostikoetan sakontzea ahalbidetuz.

Ikerketaren beharra

Parkinsona gaixotasun neurodegeneratiboen artean bigarren ohikoena da gaur egun. Europa mailan 65 urte baino gehiagokoen artean %2ak pairatzen du, ta adinean aurrera egin ahala honen presentzia areagotuz doa, 85 urtetik gorako artean %5ak pairatzen duelarik. Modu orokorrean arazo motoreak bistaritzen dira, geldotasuna eta zurruntasuna gehienbat, baina memorian edo maila afektiboan ere eraginak izan ditzake. Kasu honetan, ikusmenetik atzeman daitezkeen sintomek epe luzerako arazo kognitiboak bistaratu ditzakete. Zentzu honetan, ikerketa proiektu honen helburu nagusia da aurreikusi ahal izatea nork garatuko duen gaixotasuna eta behin hau egirik, ze gaixok izango duen bilakaera negatiboagoa. Ikerketa Eusko Jaurlaritzak babestua dago, osasun arloko ikerketa eta garapen proiektuetarako 2020ko deialdiaren baitan.

Ikasketa bide berri bat

BASQUE CULINARY CENTERREK GASTRONOMIA ETA SUKALDARITZAKO ARTEEN GRADUAREN HEZKUNTZA-EREDUA BIRDISEINATU DU; IRAILAREN 2AN ABIATU ZEN. IKASTURTE BERRIAK ETORKIZUNeko LIDER GASTRONOMIKOEN PRESTAKUNTZA ETA GAITASUNAK INDARTZEA DU JOMUGA, ETA HORRETARAKO ZENBAIT ALOR INDARTZEAREN ALDEKO APUSTUA EGIN DA.

Etorkizuneko lider gastronomikoen gaitasunak indartze aldera Graduaren egokitzapena birdiseinatu da.



Ikasle talde txikiagoetan lan eginez ikaskuntzaren pertsonalizazioa areagotu egin da.

Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea | Basque Culinary Centerrek Gastronomía eta Sukaldaritzako Arteen Graduaren hezkuntza-eredua birdiseinatu jarri du martxan 2020/2021 ikasturtera begira. Etorkizuneko lider gastronomikoen gaitasunak indartze aldera irakaskuntzaren pertsonalizazioa, prestakuntza praktikoa, diziplinartekotasuna edo gaitasun pertsonalengarapenak pisu handiagoa hartuko du birdiseinu honen ondorioz. Graduaren egokitzapena Basque Culinary Centerreko irakasle eta ikertzaile klaustroak hainbat hilabetetan zehar landutakoaren emaitza da, alderdi erabat metodologikoez harago doana.

Ikasturte honetatik aurrera, Gastronomía eta Sukaldaritzako Arteen Gradua are gehiago sakonduko du gastronomiako profesionalen gaitasun profesionalen eta ezaugarri pertsonaletan, balio gehigarri handiko ikaskuntza-esperientzia sortuz.

Hasteko, benetako praktikan oinarritutako ikaskuntza indartu egin da, dimentsio integral eta globalago batekin. Bestetik, diziplinartekotasuna sustatu da, horretarako ikaskuntza esanguratsuagoa izan dadin sortutako eduki berriak erabiliz. Horrez gain, ikasle talde txikiagoetan lan eginez ikaskuntzaren pertsonalizazioa areagotu egin da, ikasleek

horien artean aukeratu ahal izateko. Bukatzeko, egokitzapen berri hauei esker edozein profesional etorkizunerako behar dituen gaitasun profesionalen, balioen eta ezaugarri pertsonalengarapenean sakonduko du. Praktikei dagokionez, aldiz, orain arte bezala, hauek maila guztietan sustatuko dira.

Aurrerapauso garrantzitsu bat

Basque Culinary Centerreko zuzendari den Joxe Mari Aizegak adierazi duenez birmoldaketa honek aurrerapauso garrantzitsu bat suposatu du: "Pandemiaren garai honetan, Fakultateak hezkuntza-jarduerari % 100 online eusteko erronkari erantzun dio, ikasleek ikasturtea gal ez zezaten, eta etorkizunean ere jarri dugu ardatza, eta pentsatu dugu nolako izan behar duen gure hezkuntza-ereduak etorkizuneko gastronomiaren profesionalak prestatzeko". Gainera, zentroko zuzendariak plan hau aurrera ateratzeko bertako langileek egindako ahalegina goraiatu du: "Hilabete hauetan zehar, ikastegiko irakasle eta profesional askok lanean jarraitu dute hainbat arlotan, hezkuntza-eredu aurreratu eta praktikoa diseinatzeko; eta, horretarako, Basque Culinary Centerren azken 10 urteetako esperientzia hartu da oinarri".

Nagore Ipiña izendatu dute dekanoa berria Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean



Nagore Ipiña dekanoa.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Fakultateko Kontseilu Errektoreak Nagore Ipiña izendatu du Fakultateko dekanoa berria. Nagore Ipiña digitalizazioan aditua eta hezkuntzan doktorea eta, besteak beste, KoLaborategiko zuzendaria eta Fakultateko Ikerketa eta Transferentzia arloko zuzendaria izan da. Hamaika urte daramatza lanean fakultatean.

Nagore Ipiña Larrañaga (Arrasate, 1983) Ikusentzunezko Komunikazioan lizentziaduna da eta Hezkuntzan doktorea, bere doktore tesian teknologia berriak eta atzerriko hizkuntzaren garapena landu zituelarik. Ondoren, ikerketaren arloan ibilbide luzea egin du Ipiñak. Batez ere, eleaniztasuna, edukien eta hizkuntzen ikaskuntza integratua eta digitalizazioaren eragina hezkuntzan izan dira bere ikergaiak.

Dekano izendatu aurretik, Nagore Ipiñak hainbat ardura izan ditu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean: besteak beste online graduen koordinazioa, KoLaborategiko zuzendaritza (Gizarte Digitalerako Hezkuntza eta Komunikazioarako laborategia), eta, urtebetetik hona, Fakultateko Ikerketa eta Transferentzia arloko zuzendaritza. Era berean, azpimarratu behar da dekanoa berriak lau hizkuntza ezagutzen dituela: euskara, ingeleza, espainola eta frantsesa.

Ipiñak azken sei urteotan dekanoa izan den Begoña Pedrosa ordezkatu du. Egun, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saiburuordea da Pedrosa.

Ranking unibertsitarioak

Lehiakorrak izateko hobetu

AZKEN HAMARKADAZ GEROZTIK RANKING UNIBERTSITARIOAK UNIBERTSITATEEN BALORAZIORAKO ERREMINTA BILAKATU DIRA. TESTUINGURU HORRETAN, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK BERE ESTRATEGIAREN ERRONKEKIN BAT DATOZEN HORIETAN NABARMENTZEA LORTU DU. RANKING HAUEK ADIERAZLE GLOBAL ZEIN KONKRETUAK HARTZEN DITUZTE KONTUTAN ETA AZKEN HAUEK DIRA MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ESTRATEGIAREKIN BAT EGITEN DUTENAK..

2 esde 2003. urtean Shangaiko unibertsitateak munduko unibertsitateen lehenengo balorazio rankinga egin zutenetik, zerrenda mota hau lantzeko tendentziak gora egin du. Zein da munduko unibertsitaterik onena? Zein unibertsitatek elkartzen ditu nobel sari gehien?

Shangaien eginiko lehenengo ranking horren ondoren THE eta QS rankingak etorri ziren, lehenengoak erabilitako metodologia orokor bera jarraituz. Beraien artean oso erlazionatuta zeuden adierazleetan oinarrituz, lortu zituzten emaitzak oso antzerakoak ziren, lehenengo postuak munduko unibertsitate handiak lortuz.

Denborarekin, ranking hauek kritika asko jaso zituzten, mundu mailan unibertsitate gutxik parte hartu baitezaketan ranking horietan.

Mondragon Unibertsitatea moduko tipologia duten unibertsitateek, tamainagatik edo kokapenagatik, besteak beste, ezin zuten pentsatu ere egin horrelako ranking batean sartzerik. Horren erantzun moduan, azken urteetan mota ezberdineko rankingak sortu dira, unibertsitatearen alderdi ezberdinak baloratzen dituzten adierazle zehatzagoetan oinarrituta, eta Mondragon Unibertsitateak hauen artean bere tokia egitea lortu du.


Nazioarteko helburuak edo talentu erakartzeko helburuak dituzten unibertsitateentzat ranking hauetan egotea ezinbesteko bihurtu da. Gainera, intereseko kolektibo ezberdinek (ikasle potentzialak, enpresa enplegu-emaileak, organismo ofizialak, etab.) ranking hauek unibertsitateen arteko alderaketak egiteko erabiltzen dituzte.

Gune multidiziplinarra

Mondragon Unibertsitatearen identitateak berak ranking globalak kimera bihurtzen ditu, bere neurri eta eragin inguruarekin ezin baita Harvard, Cambridge edo Stanford moduko tamaina eta prestigioarekin alderatu. Horregatik, azken hamarkadetan ranking multidiziplinarren sorrerak Mondragon Unibertsitatea bere mailako erakundeekin lehiatu daitekeen egoera berria sortu du. Horien artea U-Multirankek garatutako rankinga aurki dezakegu; erabiltzaileek bultzatutako ikuspegi multidimentsionaleko goi mailako hezkuntzakonazioarteko erakundeen sailkapenerako rankinga. Europar Batzordeak implementatutakoa da eta 2020ko edizioan 92 herrialdeetako 1800 erakunde baino gehiago ebaluatu dira. Goi mailako heziketa erakundeen jarduera bost dimentsioren inguruko parametro ezberdinak neurtuz alderatzen du: ikerketa, irakaskuntza (irakaspena eta ikaskuntza), ezagutza transferentzia, nazioartekotzea eta eskualdeko ingurunearekin lotura. Ranking honetan Mondragon Unibertsitatea Espainiako unibertsitateen TOP 5ean aurkitzen da. Hortaz gain, estatuko unibertsitateen artean hirugarren postuan dago ezagutzaren transferentziari dagokionez, eta 69. postuan Europan (estatu mailan 79 unibertsitateko laginarekin eta Europa mailan 747 unibertsitateko laginarekin).



Nazioarteko helburuak edo talentu erakartzeko helburuak dituzten unibertsitateentzat ranking hauetan egotea ezinbesteko bihurtu da



TRANSFERENTZIAK
U-multirank: gure unibertsitatea Estatuko hirugarrena da arlo honetan.



ADE GRADUA,
CyD rankingaren arabera, bere ikasketak amaitu dituztenentzat enplegua sortzen lehena da.



INGENIARITZA
U-Rankingek nabarmendu du ingeniari-tza-karrerekin estatuko enplegagarritasun-daturik onenak eskaintzen dituztela.



KONPROMISOA ETA GARDENTASUNA FUNDAZIOA
Konpromisoa eta gardentasuna Fundazioa Mondragon Unibertsitatea 11. postuan kokatu du.



ENPLEGU-TASA
Mondragon Unibertsitateko graduatuen % 87 dira Lanbideren arabera.



Estatu mailan erreferente

Espainiako unibertsitate sistema ere aztertua izaten ari da ranking ezberdinen ikuspuntutik eta CyD eta U-Ranking dira gehien nabarmentzen direnak. CyD Rankinga adierazle garden eta fidagarrietan oinarritutako erreminta berritzaile bat da eta Espainiako unibertsitate sistemaren kalitatea neurtzeko gai da, jarduera alor ezberdinetan unibertsitate bakoitzaren etekina neurtuz. Orain gutxi argitaratu den azken edizioan, CyD Rankingak Mondragon Unibertsitatea sortutako spin-offetan estatu mailan lehenengo postuan jartzen du eta Espainia mailan bigarrena ikasleen mugikortasunean,



U-Multirank erakundeak garatutako rankinga Europako Batzordearen ekimenez ezarri da, eta 2020ko edizioan 92 herrialdeetako 1800 erakunde baino gehiago ebaluatu dira.

fondo pribatuen jasotzean eta enpresa publikazioetan. Gainera, unibertsitateko ardatz estrategikoa den ikerketa arloa azpimarratzen du, Espainia mailan publikazio eraginean laugarren postuan kalifikatuz, eta seigarren postuan eskualdeko enpresa publikazioetan.

Orokorrean, CyD rankingak Mondragon Unibertsitatea maila orokorrean Espainiako 11. unibertsitate moduan kalifikatzen du. Graduetako graduazio mailari dagokionez, laugarren posturaino igotzen da, baita atzerriko praktikei dagokionez ere.

Gainera, CyD Rankingak behaketa berezi bat egiten du Mondragon

Unibertsitateko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduan, graduatuentzat lana aurkitzeko estatu mailan lehenengo unibertsitatea izanez.

U-RAKINGa Espainiako unibertsitateen rankingen artean erreferente den beste ranking bat da. BBVA eta IVIE (Instituto Valenciano de Investigaciones Económicas) erakundeek ekimen bat da eta 48 unibertsitate publiko eta 22 unibertsitate pribatuen analisia batzen ditu. Ikasle kopuruei dagokionez Espainiako Unibertsitate Sistemako ikasleen %97a estaltzen du eta 3.300 gradu eta gradu bikoitz aztertzen ditu. 2020an publikatu den



CyD rankingak Mondragon Unibertsitatea maila orokorrean Espainiako 11.unibertsitate moduan kalifikatzen du

U-RAKINGeko azken informeak, Mondragon Unibertsitateak ingeniari-tza gradu-eta duen indarra nabarmentzen du, estatuko enplegarritasun datu onenak izanez.

Ranking mota hauetaz gain, gero eta gehiago dira unibertsitateen gardentasun informatiboa moduko beste adierazle batzuk neurtzen dituzten analisiak. Horren adibide da, esaterako, urtero Fundación Compromiso y Transparencia erakundeak publikatzen duen "Ranking de Transparencia de las Universidades". Raking honetan unibertsitateek beraien webguneko gardentasun portalean publikatzen duten informazioa aztertzen da. Gardentasunari dagokionez bereziki esanguratsuak dira Plan Estrategikoa, Pertsonala, Politikak eta Gobernuak, Gizarte Kontseilua, Agindupeko Erakundeak, Eskaintza eta Eskari akademikoa, Irakasle eta Ikertzaileak, Ikasleak, Informazio ekonomikoa eta Emaizak.

Azken urteotan Mondragon Unibertsitateak garapen positibo bat jasan du aipatutako rankingean eta gaur egun 11.postuan aurkitzen da estatuko unibertsitate pribatuen artean.



Mondragon Unibertsitatean gradua amaitutako tituludunen enplegu-tasa % 87koa dela eta masterrean tituludunen enplegu-tasa % 91koa dela.

Unibertsitate lanpostura

Kasu askotan unibertsitatea mundu profesionalaren aurreko trantsizio garaia da. Garai horretan unibertsitateko ikasleek ahal bezain beste ezagutza lortu nahi dituzte lanpostu on bat lortu ahal izateko edo beraien enpresa abentura hasteko. Baina hori errealitatearekin bat al dator? Urtero Mondragon Unibertsitateko tituludunekin egiten den ikerketan ikustea posible da.

16 urte dira Mondragon Unibertsitateak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lan egiten duela beraien ikasleek ikasketak amaitu eta hiru urte beranduago duten lan-egoera aztertzeko. Ikerketak, beste gauza batzuen

artean, enplegu-tasa, egokitutako enplegua, lan bilaketako denbora edo lanean dauden enpresa mota aztertzen ditu.

Azken 16 urteetan zehar Lanbide Mondragon Unibertsitateari egindako ikerketek diote, aztertutako ia adierazle guztietan, nahiz eta krisi garaietan fluktuazioak jasan dituzten, oso emaitza positiboak dituela. Horrela, 2016ko promozioaren lan-egoerari dagokion 2020ko informeak diolangabezia-tasa %9aren inguruan dagoela; %11 gizonezkoen kasuan eta %8a emakumezkoen kasuan. Masterrean tituludunen kasuan, langabezia-tasa %5,6ra jaisten da - %6,1a gizonezkoetan eta %5a emakumezkoetan-. Gainera, graduetan tituludunen %88aren lana

beraien formazioaren mailakoa da eta lanarekin duten gogobetetasun media 7,4koa da. Masterrean tituluduneri dagokionez, egokitutako enplegu tasa %97ra igotzen da.

Bestalde, Mondragon Unibertsitateak, modu paraleloan, urtero azterketa sakona egiten du duten egoera aztertuz. Horrela, azken informeko datuak diote gradua amaitutako tituludunen enplegu-tasa % 87koa dela eta masterrean tituludunen enplegu-tasa %91koa dela. Hortaz gain, azken kolektibo honetan %23ak praktikak edo gradu amaierako lana egiten egon diren enpresan jarraitzen du; unibertsitateak lan bilaketa eta enplegulortzean duen garrantziaren erakutsiz.



UNIVERSITY RANKINGS, IMPROVE TO BE COMPETITIVE

MONDRAGON UNIVERSITY PERFORMS WELL IN MORE SPECIALIZED RANKINGS REFLECTING ITS STRATEGIC PRIORITIES

University rankings have been key tools since 2003. The general approach of early rankings produced similar results - major world universities in top positions. Criticisms for being closed to many world universities, due to their size, location, led to rankings with more specific indicators in different areas. A place in these rankings is vital for universities to internationalise or attract talent. Students, companies, official bodies all use them to compare universities.

Multidisciplinary focus

Due to its size and area of influence, Mondragon University cannot be compared with Harvard or Cambridge. Recent more multidisciplinary tables compare Mondragon University with similar universities e.g. the European Commission's U-Multirank rates over 1800 entities in 92 countries in 2020 in 5 areas: research, teaching and learning, knowledge transfer, internationalisation, links to regional environment. Mondragon University was in the TOP 5 Spanish universities overall and 3rd out of 79 in Spain and 69th out of 747 in Europe in knowledge transfer.

State benchmarks

CyD and U-Ranking are two leading Spanish university rankings. CyD rates Mondragon University 1st in Spain in spin-offs and 2nd in student mobility, private fundraising and publications with companies. In research, Mondragon University is 4th in publication impact and 6th in publications with regional companies.

CyD rates Mondragon University 11th in Spain overall, 4th in graduation rate and internships abroad. Its Business Administration and Management Degree is 1st for graduate employment.

U-RANKING, another Spanish ranking, is a BBVA Foundation and IVIE (Valencian Institute of Economic Research) initiative analysing 48 public and 22 private universities (97% of Spanish undergraduates; over 3,300 single / joint degrees. In 2020 U-RANKING put Mondragon University in the top 8 in teaching, due to its strength in engineering courses, with one of Spain's best employability rates.

Rankings also analyse areas such as information transparency - Fundación Compromiso y Transparencia's "Universities Transparency Ranking" rates the publication, on web transparency portals, of 10 key transparency items: Strategic Plan, Staff, Policies/Governance, Social Council, Dependent entities, Academic supply and demand, Teaching and research staff, Students, Economic information and Results.

This ranking rates Mondragon University positively - currently the 11th private university in Spain.

Employment

University is the stepping stone to work where students learn as much as possible to improve their employment prospects.

Mondragon University works annually with Lanbide-Basque Employment Service analysing student

Unibertsitate rankingak eta ikaslearen esperientzia

Iñaki Fernandez. Ikertzailea eta irakaslea Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatean.



Azken urteotan, unibertsitate ranking desberdinei egindako kritikek hauekiko hautemandako irudian eta erosketa-erabakietan izan duten eraginaren erritmo berean gora egin dute. Hauen ospareen arrazoietakoa bat, eta aldi berean kritika jasotzeko arrazoi nagusienetako iturria da, izan ohi duten sinpletasuna alegia. Hezkuntza-erakunde baten jarduna zifra objektibo batera murriztea bideraezina da, argi eta garbi; izan ere, adierazleak aukeraketak eta berariazko pisuak rankingaren metodologia diseinatzen duen erakundearen lehentasunak eta balio-judizioak islatzen dituzte.

Hala eta guztiz ere, ranking hauek epe laburrean desager daitezkeela pentsatzea inozoa litzateke, eta, gainera, kalitatea ziurtatu eta beste erakundeekiko alderaketak egiteko baliagarriak izan daitezke. Unibertsitate bakoitzak lurraldean duen eraginari buruzko informazioa maila korporatiboan emateko erabilgarriak izan daitezke.

Bestalde, bi kontzeptu daude ranking horietatik kanpo, unibertsitatearen jardunaren eta komunitateari egindako ekarpenaren irudi erreala goa ematen lagun dezaketenak. Ez bakarrik hezkuntzaren kalitatetik eta ikerketarako eta transferentziarako gaitasunetik, baizik eta ikuspegi zabalago batetik, beste eragile batzuk barne hartzen dituena eta arreta esperientzian jartzen duena.

Lehenik eta behin, eragin soziala identifikatu dezakegu: nola erakutsi gizarteari emandako balioa, erakunde publikoek egindako inbertsioaren itzulera barne. Melbourneko Unibertsitateak, Londresko King 's Collegek eta Chicagoko Unibertsitateak osatutako partzuergo batek garatutako "Advancing

University Engagement" txostenean, 8 adierazle zehazten dira, unibertsitate komunitate eta gizarte baterako balioaren sorrera neurtzeko. Hausnarketa hau bereziki interesgarria izan daiteke Mondragon Unibertsitatearentzat, unibertsitatearen bokazio soziala eta eraldaketa sozialerako konpromisoa indartzeko.

Bigarrenik, ikasleen esperientziari eta harreman-ereduaren azterketari ematen zaien arreta urriari aurre egin behar diogu. Sare sozialek eskaintzen dituzten erraztasunei esker beste pertsona batzuen iritziek etengabe eragiten diguten testuinguru honetan. Zentzu honetan, harrigarria da Net Promoter Score (NPS) delakoaren bidez egindako gomendio-mailatik harago ikasle esperientzia horren funtsezko adierazleak ez erabiltzea. Zenbateraino esan dezakegu unibertsitate bat estatuko onenen artean dagoela bertako ikasleen esperientzia ezagutzen ez badugu? Gainera, neurtzen ez dena ezin bada kudeatu, nola ziurta dezakegu abian jartzen ari diren hezkuntza-berrikuntzek eragin positiboa dutela ikasleen esperientzia eta jardunean bertan? U-Multirank delakoan (Europako Batzordeak egindako rankinga), ikaslearen asebetetzearen alderdiak aztertzen dira, irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren dimentsio bitartez, baina alderdi kualitatiboak estandarizatzeko arazoa aurkitzen jarraitzen dugu, jasotako informazioa murrizta baita.

Mondragon Unibertsitatean ikasleek gehien baloratzen dituzten elementuak eta elementu horien eta esperientziaren balorazio orokorraren arteko korrelazioa identifikatzen zenbait urte daramatzagu. Alderdi kualitatiboari erreparatzen badiegu, monitorizatu eta kudeatu beharreko

bi faktore nagusi ikusiko ditugu, ikaskuntza-esperientzia bereizgarriak bermatzeko:

-Esperientzia duala: ranking gehienetan, graduatuen enplegarritasunarekin eta enpresan duten kokapenarekin lotutako datuak agertzen dira, baina ez dira lehen lan-esperientzietan ohikoenak diren arazoak jorratzen: Erakundeeko pertsonen kudeaketari buruzko pertzepzioa, adituen mentorizazioa, esperientziaren eragina ikaskuntzan, autonomia-maila eta erabakitze gaitasuna.

-Gaitasun bignun garapena: planifikatzea gero eta zailagoa den aldaketa bizkorren garaian, unibertsitateko esperientzian lantzen diren eduki teorikoak eta metodologiak zaharkituta gera daitezke epe ertainean. Beraz, trebetasun horiek garatzea funtsezkoa da ikasleak graduak enplegarritasunerako edukiak baino zerbait gehiago ekarri dituela senti dezan. Kasu honetan, arazo berri bat dago: nola neurtu (eta justifikatu hirugarrenen aurrean) trebetasun mota horien garapenean egindako aurrerapenak, eta, ondorioz, ikasleak nola kontziente bihurtu unibertsitate-esperientzian izandako aldaketaz.

Etorkizunari begira, eta digitalizazioak zein Learning Analytics eremuak eskaintzen dituzten aukerei esker, ziur nago hezkuntza-erlotik ikaskuntza-esperientziaren neurketa eta kudeaketa hobetzen jarraituko dugula, harreman-eredua ikasleen, enpresen eta beste interes-talde batzuen beharretara egokituz. Pertsonen eta erakundearen eraldaketa eta garapena sustatzen jarraitzeko eta balioa emateko erronka pizgarri eta ezinbestekoa dugu. Egin dezagun.



“Rankingetan ondo kokaturik agertzeak egunero egiten dugun lana islatzen du”

IDOIA PEÑACOB
Mondragon Unibertsitateko idazkari nagusia

UNIBERTSITATEEK EGUNERO EGITEN DUTEN LANA AZTERGAI JARTZEN DA RANKING EZBERDINAK PUBLIKATZEN DIREN BAKOITZEAN. SAILKAPEN HAUEK GEROZ ETA OHIKOAGOAK DIRA MUNDU AKADEMIKOAN, ETA MONDRAGON UNIBERTSITATEAK TOKI ON BAT ESKURATZEA GARRANTZITSUTZAT JOTZEN DU.

Mondragon Unibertsitateak ranking ezberdinetan parte hartu izan du azken urteotan, baina zein da hauetan parte hartzearen helburua? Kanpo balorazio hauek eskaintzen dituzten aukerei buruz aritu gara Idoia Peñacoba, Mondragon Unibertsitateko idazkari nagusiarekin.

¿Azkenaldian unibertsitateak ranking bitartez baloratzeko korrontea nabarmena da. Noiztik dator joera hau? 2003an Shanghai Jiao Tong Uni-

“

Atzerrian rankingek berebiziko garrantzia dute, eta nazioartekotza helburu estrategiko dugularik ezin ditugu alde batera utzi”

bertsitateak Shangaiko ranking gisa ezagutzen dugun unibertsitate ezberdinak baloratzeko ranking bat argitaratu zuen, eta hurrengo urtean THE eta QS rankingak sortu ziren. Lehenengo sorturiko ranking hauek oso orokorrak dira, unibertsitateen arteko konparazioak modu errazean egiteko bideratuak. Horretarako baloratzen dituzten aldagaiak gehienbat unibertsitatearen tamaina edo ospearekin lotuak daude, unibertsitateak dituen Nobel saridunak edota aldizkari espezializatueta egindako goi mailako argitalpen zientifikoen kopurua, kasu. Hauetako lehen postuetan agertzen direnak ia beti berdintsuak dira (Harvard, Cambridge, Stanford...), eta Mondragon Unibertsitatea moduko unibertsitate txikiek ez daukagu bertan parte hartzeko aukerarik ere.

Bestalde, azken hamarkadan rankingekiko interesak gora egin du, eta beste mota batzuetakoak agertu dira, diziplina anitzeko ikuspegia dutenak eta sailkapen espezializatuago bat argitaratzen dutenak. Mota hauetako rankingek, unibertsitateen arteko konparaketa absolutuetatik aldentuz, dimentsio edo arlo ezberdinen arabera egiten dituzte sailkapenak. Adibidez, hauen arabera unibertsitate bat beste bat baino hobea izan daiteke ikerketa arloan, baina agian ikasle mugikortasunean kalifikazio baxuago bat jaso. Metodologia hau erabiltzen dutenen artean U-Multirank eta CyD dira esanguratsuenetarikoa.

Azken finean, hauek ez dute munduko unibertsitate onena bilatzen, baiziketa norberak bilatzen duenaren arabera aldagai bakoitzeko sailkapen bat plazaratzen dute.



Baina, zertarako erabiltzen dira rankingak edota nork bilatzen du informazioa bertan? Orohar, unibertsitateen arteko konparaketak egiteko erabiltzen dituzte kolektibo ezberdinek. Batetik, ikasketak egiteko unibertsitate bat aukeratu behar duten ikasle edo hauen familientzat interesgarria izan daiteke ranking espezializatuak eskaintzen duten informazioa, interesatzen zaien ezaugarri edota dimentsioen arteko konparaketak egiteko aukera eskaintzen dutelako.

Egia da agian hemen ez dagoela rankingak aztertzeke ohiturarik. Atzerrian aldiz, ikusten ari gara ikasketak egiteko bekak ematen dituzten administrazio eta erakunde ezberdinek gero eta gehiago erabiltzen dituztela hauek, adibidez mugikortasun programak burutzeko unibertsitateak identifikatzerako orduan.

Horrez gain, zenbait gobernu hasi dira baliabideen banaketa egiterakoan ranking ezberdinen informazioa aztertzen, eta unibertsitateen kalitatea ebaluatzen duten agentzientzat ere informazio osagarria eskaini dezakete, beti ere adierazle homogeneizatuak neurtzen dituztelako. Hauek adibide batzuk ditugu, baina beste zenbait ere aurki ditzakegu; talentu bila dauden enpresak, etorkizuneko ikasleak...

Hainbat kasutan rankingak gizartearentzat lagungarriak izan daitezke-

la ikusi dugu, baina konparazioak askotan arriskutsuak ere izan daitezkeela uste al duzu? Bai, hala da. Ranking orokorreki buruz gabiltzanean oso konplexua den errealitatea zenbaki bakar baten sinplifikatzeak arrisku handia du, baita ere subjektiboak izan daitezkeen adierazleei zenbaki bat jartzea. Askotan, tamaina edo kantitatea soilik kontuan hartzen dugu kalitatea neurtu beharrean, eta horrek ere emaitzak indargabetu ditzake.

Neurri handi baten, mota horretako arriskuak eta kritikak ekiditeko sortu dira azken urteotan lehen aipatu ditudan ranking espezializatu hauek.

Eta mota hauetako rankingek nola funtzionatzen dute? Nondik eskuratzeko dituzte datuak? Ranking bakoitzak bere metodologia eta prozesu propioa ditu. Batzuek informazio gehiena kanpo iturrietatik bereganatzen dute (publikoak diren datu baseak...), eta beste batzuk unibertsitateek beraiek emandako informazioan oinarritzen dira.

“

Interesatzen zaizkigun rankingetan ondo baloratuak agertzen gara, eta horrek lanean jarraitzeko indarra ematen digu”

Mondragon Unibertsitateari dagokionez, zergatik da garrantzitsua ranking hauetan agertzea? Rankingak unibertsitate munduan gero eta presentago dauden errealitateak direlarik, guk ezin dugu ez-ikusiarrena egin. Lehen aipatu dudana bezala, atzerrian ranking hauek bere pisua dute, eta Mondragon Unibertsitatearen erronka estrategiko bat nazioartekotza bultzatzea dela jakinik, hauetan toki on bat lortzea garrantzitsua da guretzat. Gainera, erakundetik kanpo dagoen norbaitek modu objektiboan egiten dituen balorazioak sinesgarritasun handiagoa ematen dio gure mezuari.

Zein rankinetan parte hartzen du unibertsitateak? Nazioarteko U-Multirank eta Estatu mailako CyD rankinetan aktiboki parte hartzen dugu



urtero, 2013-2014 ikasturtean sortu zirenetik.

Era berean, BBVA eta IVIEk urtero ateratzen duten U-rankinean edota 'Compromiso y Transparencia' fundazioak unibertsitateen gardentasunaren inguruan urtero argitaratzen duen rankinean ere parte hartzen dugu.

Eta nolakoak dira emaitzak? Oraindik esparru batzuetan hobetzeko hainbat adierazle ditugun arren, orohar azken urteotan emaitzak oso onak direla esatera ausartuko nintzateke.

U-multirank 2020ko edizioan egindako sailkapenean, adibidez, Mondragon Unibertsitatea bosgarren postuan dago Espainiako Estatu mailan unibertsitateen artean. Bertan ezagutzaren transferentzian dugun egitekoa nabarmentzen da, Estatu mailan hirugarren sailkatzen gaituztelarik.

Horrez gain, **CyD rankinean** gure inguruaren garapenean egindako ekarpenak 11. toki eskuratu du Estatu mailan, ikasle ohien enplegagarritasuna nabarmenduz.

U-rankingaren 2020ko edizioan, aldiz, irakaskuntza dimentsioan Estatu mailan aurreneko zortzi unibertsitateen artean kokatu gaituzte.

Oro har, esango nuke harro egoteko moduko emaitzak direla, eta lanean gogor jarraitzeko indarra ematen digu.

Gorputza aktibatzeke adimen artifiziala

JON VITAL ETA CARLOS RODRÍGUEZ-SIERRAK TRAK PHYSIO GARATU DUTE, ADIMEN ARTIFIZIALAREN BIDEZ GAIXOAREN AKTIBITATE FISIKOAREN GAUZATZE ZUZENA ZIURTATZEN DUEN BIRGAITZE ETA JARRAIPEN PLATAFORMA. IRUNGO FAKULTATEKO LEINN IKASLEEK GARATUTAKO SOFTWAREAK ERABILTZAILERA GIDATZEN DU ARIKETAK EGITEN DITUEN BITARTEAN ETA HORIEN PRAKTIKA KONTROLATZEN DU.



Vitalek eta Rodríguez-Sierrak fisioterapia iraultzen dute.

Enpresagintza Fakultatea | Bere aitaren lesio batek eta konfinamenduan zehar birgaitzeko ezintasunak Jon Vital konponbide bat aurkitzera bultzatu zuen. Carlos Rodríguez-Sierra eta biak ideia lantzen joan ziren eta gaur egun errealitate bihurtu da jada. Irungo fakultateko LEINN ikasleek TraK

Physo merkaturatu dute, aktibitatea egin bitartean erabiltzailera gidatzen duen eta praktika horiek kontrolatzen dituen softwarea. Ideiaren garapenerako David Soler programadorea eta Fernando Urtasun fisioterapeutaren laguntza izan zuten eta lean startup metodologia jarraituz merkatura ahal bezain laster iritsi ahal izateko gutxieneko produktu bideragarri bat sortzen zentratu ziren.

Profesionalentzako zerbitzua

TraK Physo fisioterapeutentzat laguntza bat izateko sortu da, nahiz eta aurrerago, produktua bermatzean, osasun sektorean sartzeko aukera ere ez duten baztertzeko. Hasiera batean beraien zerbitzuak fisioterapeutei zuzenduko dizkie eta ondoren, proposamena aurreratuago dagoenean, osasun sektore publiko zein pribatuari helduko diote. Bide honetan balidazio klinikoentzat aliantzak lortu nahi dituzte eta jada ospitale batzuetan sartzeko aukera dutela baieztatzen dute. Beraien posizioa hobetze aldera irailean ospatutako Health 2.0 Basque kongresua moduko topaketetan parte hartu dute. Beraien produktua merkaturatzeko, Jon eta Carlosek funtzionalitateen eta erabiltzailera aktiboen arabera prezioa aldatzen duten hiru plan ezberdin diseinatu dituzte, eta 30 eta 60 euro hileko izango direla aurreikusten dute. Merkaturatzea estatu espainiarrean egingo da eta etorkizunean Alemania, Finlandia edo Estatu Batuak moduko herrialdeetara zabaltzeko ideia dute.

Ingeniaritzaren eta medikuntzaren arteko lankidetzaren indarra

MEDIKUNTZA ETA INGENIERITZAKO SEKTOREAK ELKARLANEAN ARI DIRA BULARREKO MINBIZIAREN ONDORIOZ MIN HARTUTA DAUDEN ZELULEN ANTZEMATEA HOBETUZ GAIXOAREN ONGIZATEA BERMATZEKO.



Patentatutako soluzioak minbizia detektatzeko prozesuan esku hartzen du.

Goi Eskola Politeknikoa | Mondragon Unibertsitateko Materialak Eraldatzeko Prozesu Aurreratuak ikerketa taldeak Rioja Salud Fundazioko Medikuntza Nuklearra Sailarekin elkarlanean ari da bularreko minbiziaren antzematea hobetuko duen soluzio bat bilatze aldera. Ingeniaritzan irakasle eta ikerlaria den Xabier Chamorro, Cañete eta Boulevard mediku espezialistekin elkarlanean, bularreko minbiziaren hedapena errazten duen gongoil zelatariaren lokalizazioa hobetzen duen metodo bat garatu du. Modu honetan, planteatu eta patentatu den soluzio honi esker, erradiazio barreiatua %80an murrizten da, zelula kantzerigenoak erauzterakoan zehaztapen-lerroa handiagotuz.

Medikuntzatik ingenieritzara

Goi Eskola Politeknologikoak medikuen esku jarri ditu bere teknologia eta ezagutza idea bati forma eman ahal izateko: berunezko ezku erdiesferikoak erabili pazientearen miaketan erradiazioa xurgatzeko. Prozesuan zehar, 3D inpresioaren bitartez lehen prototipo batzuk garatu ziran, eta behin geometria zuzena aurkituta Chamorro bere espezialidade duen fundizioaren teknika erabiliz soluzio finalak ekoiztu zituen. Prozesuaren azken emaitza Mondragon Unibertsitateak bere gain %20a duen patente bat izan, etorkizunean osasun sektoreak erabili ahal izango duena

RAID 2020 nazioarteko kongresua antolatu du Goi Eskola Politeknikoak

Goi Eskola Politeknikoa | Goi Eskola Politeknikoak zibersegurtasunaren sektorean mundu mailan erreferentzia den RAID 2020 kongresua –Research Attacks Intrusions Defenses International Symposium– antolatu du, sektoreko 100 nazioarteko aditu baino gehiago elkartzuz. Bertan, eraso informatiko, detekzio metodo eta babes teknikei buruz eztabaidatu eta gai horien gainean egindako ikerketen emaitzak azaldu dituzte.

Zibersegurtasunean sakontzen

Mondragon Unibertsitateko Datuen Analiari eta Zibersegurtasuneko ikerketa taldeak urteak daramatza Europako ikerketa proiektu garrantzitsuetan parte hartzen, eta talde hau izan da ekitaldiaren antolaketaren ardura hartu duena. Zibersegurtasunaren jakintzan sakontzeko joeraren testuinguruan kokatu da ekitaldia, izan ere, azken aldian gai honi buruz Euskadi mailan zenbait ekimen garrantzitsu bultzatzen ari dira. Besteak beste, SPRI Taldeak Basque CyberSecurity Center izeneko erakundea sortu du, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ZIUR Industria Zibersegurtasun Zentroa.



RAID kongresua osotasunean birtualki izan da.

Gazteen hizkuntza errealitate aztertzeko, Soziolinguistika Klusterrak jardunaldia egin du Eskoriatzako campusean

HIZLARIK ESKORIATZAKO CAMPUSETEIK EGIN ZUTEN BERBA ETA EMISIOA STREAMING BIDEZ ESKAINI ZEN. 115 LAGUNEK JARRAITU ZUTEN ORDAINPEKO EMISIOA.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Urriaren 28an, Soziolinguistika Klusterrak Eskoriatzako campusa aukeratu zuen urteko jardunaldi nagusia egiteko. Jardunaldiaren 12. edizio horretan, gazteen joera linguistikoak aztertu zituzten unibertsitate desberdinetatik etorritako ikertzaile eta hezkuntza eta aisialdi esparruko eragileek. Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak harreman handia du Soziolinguistika Klusterrarekin: erakundearen bazkide da eta Zuzendaritza Batzarodeko kide.

Egun osoko jardunaldian, aurkeztuko zituzten hainbat ikerketa eta esku hartzeren emaitzak eta ondorioak. Jardunaldiak aukera eman zuen ezagutzeko eta lantzeko gazte eta nerabeen esparruan euskararen biziberritzearen ikuspegitik aurrera eramaten ari diren ikerketa, berrikuntza eta garapen proiektuak.

Hiru bloke nagusitan banatuta egon zen jardunaldia. Lehenengo zatian, Soziolinguistika Klusterraren hiru proiektutan oinarritutako hitzaldiak



Jardunaldia streaming bidez eskaini zen.

eskaini ziren. Bigarren blokean, aldiz, hamar ikerketa eta esku-hartze proiekturen aurkezpen laburrak egin ziren. Azkenik, jardunaldia borbiltzeko, mahai-ingurua egingo zuten. Mondragon Unibertsitateko ikertzaileek bi ponentzia aurkeztu zituzten jardunaldian.

Enpresen erronkekin martxan jartzen da myGADE

Enpresagintza Fakultatea | Aurtengo kurtsoan myGADERak enprekin lanean hasi dira bititza tokatu zaigun “ingurune aldakorreko” erronkei aurre egingez.

Enpresa horietako bat Bexen Medical da, osasun sektorean 40 urte baino gehiagoko esperientzia duen enpresa; osasun sektorean dauden behar historikoei erantzuten eta berrikuntza eta konpromisoaren bidez merkatuari balioa gehitzen lan egiten duena. Lorena Picabea, Bexen Medicaletako Sales and Customer success development arduradunak, horrelako momentu ezegonkor batean maskaren

merkatua ikertu eta sektore horri balioa gehitzeko erronka bota digu.

MyGADEn enprekin batera lan egiten eta ikasten da, baita pandemia garaian ere. Ikasleak konturatzen ari dira COVID-19ak ezberdin pentsatzera derrigortzen gaituela, gure konfortonatik irtetzera, ohiturak aldatzera, gauzak egiteko moduak aldatzera. Merkatu eta faktoreak aldaketak jasaten dituztela eta horien aurrean enpresek ere eraldaketa bat behar dutela.

Zein garrantzitsua den enpresen errealitate horretatik gure ikasleekin lankidetzan aritzen ikastea!



Ikasleak Bexen-en erronkari erantzuten.

Pertsonakooperatiboaren profila neurtzen

PERTSONA KOOPERATIBOEN PROFILA LANGILE ETA GAZTE IKASLEEN ARTEAN NEURTZEKO ESKALA BAT PROPOSATZEN DUTEN BI PUBLIKAZIO ARGITARATU DIRA, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IKERTZAILEEK IDATZITAKOAK.



Argazkian, ezkerretik eskuinera: Oxel Azkarate Iturbe, José Ramón Vitoria eta Ion Lezeta.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikertzaile talde batek joan den urriak 7an bi publikazio aurkeztu zituen Eskoriatzako campusean izandako ekitaldi batean. Ikerketa lanak. KOOPHEZI proiektuaren parte direnak, pertsona talde biren profil kooperatiboa neurtzeko baliagarri izango dira: gazte ikasleena eta langileena. Aurkezpen ekitaldian proiektuaren koordinatzailea den José Ramón Vitoria eta ikertzaile taldeko bi ordezkari hartu zuten parte, publikazioetako arduradunek alegia: Oxel Azkarate-Iturbe (gazte ikasleen profil kooperatiboa) eta Ion Lezeta (langileen profil kooperatiboa).

KOOPHEZI ikerketa proiektuaren emaitzak

Proiektua aurrera eramán duten ikertzaileen iritziz XXI. mendeko gizarte erronkek “pertsona kooperatibo” baten beharrezan agerian utzi dute, eta pertsona kooperatibo honen profila garatzeko testuingurua komunitateko alor ezberdinetan elikatu behar da.

Ikerketa taldeak uste duenez, egoera berriak soluzio berritzaileak eskatzen ditu, eta zentzu honetan gaur egungo gizarte konplexuak azaleratzen dituen erronka zailei aurre egiteko pertsona gaituak beharrezkoak dira.

KOOPHEZI ikerketaren helburu nagusiak dira alde batetik hezkuntza erakunde zein lantokietan etorkizuneko erronkei aurre egingo dien pertsona kooperatiboaren identifikazio eta garapenerako tresna aurreratuen datu base bat egitea, eta beste alde batetik tresna hauek ikasle eta langileen artean profil kooperatiboaren neurtuko duen eskala bat sortu eta garatzeko egokitzea. Ikerketa honek “pertsona kooperatiboa” definitu eta profil hau neurtzeko bi erreminta sortzea ahalbidetu du. Ikerketaren emaitzak liburu bitan jaso dira; KOOPHEZI-i: Pertsona kooperatiboaren profila ikasle gazteetan neurtzeko eskala eta KOOPHEZI- L: Escala para medir el perfil de persona cooperativa en los trabajadores y las trabajadoras. Paperaz gain, KOOPHEZIn ikerketa bi hauek interesdunek eskuragarri izango dituzte unibertsitatearen webgunean.



ailene estudioaren sortzaileak.

ai!ene Ederra egin dugu!

Goi Eskola Politeknikoa | Aitor Fernándezek eta Jone Bengoak Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Gradua elkarrekin ikasi zuten Goi Eskola Politeknikoan. Biak eibartarrak izan arren unibertsitatean ezagutu zuten elkar, eta lehen mailan hasi ziren diseinu estudio propio bat sortzeko ideari bueltak ematen.

Urte batzuk geroago ‘ai!ene’ errealitate bat da, kooperatiba bezalaz sortutako diseinu estudioa. 2019ko irailean hasi ziren bi ekintzaileak ideia lantzen, Aitorrek bere Diseinu Estrategikoko master amaierako proiektua ideia honetan oinarritzen zuen bitartean. Hasieratik Saiolanen babesa izan zuten eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekintzaile Txekintek programako dirulaguntza ere jaso zuten. Garaiako Berrikuntza Poloanigarotako lehen urtea inguruko enpresen azterketa egiten jardun zuten eta enpresak merkatuan izan dezakeen bilakaera definitu zuten. 2020ko irailetik Ermuako Izarra Centren kokatu dute estudioa.

Bertako enpresei begira

‘ai!ene’ estudioak produktu eta zerbitzuen garapen edo berdiseinua eskaintzen die bertako enpresa txikiei, hauen beharrezan asetzeko formula egokiak bilatuz. Helburu hauek arrakastaz gauzatzeko ai!ene-n

metodologia propio bat garatu dute, hiru urratetan banatzen dena. Lehenik eta behin merkatuak eskaintzen dituen aukera berriak aztertzen dituzte, tendentzien azterketa bat eginez merkatuan erraz integratu daitekeen produktu edo zerbitzu bat identifikatzen dute. Behin hau egina, bigarren fasea merkatuak sorturiko aukera berri hau tangibilizatzea da, ingeniariak hartzen du indarra une honetan, 2D edo 3D prototipoak sortu eta produktu digitala diseinatuz. Bukatzeko, hirugarren fasea arriskuak minimizatzea da, metodologia propioa aplikatu ondoren merkatuak onartuko dituen produktu edo zerbitzuak ekoizten baitira, bezeroari bermea eskaintze aldera. Aitor eta Jonek nabarmentzen dutenez, diseinu bat arrakastatsua izateko merkatuak hau onartzea eta bermea ematea beharrezkoa da, proiektua monetarizatzea alegia, hori dela eta ai!ene-k ekoiztutako guztia erabilgarri izatea dute helburu nagusizat.

Urte bateko ekintzailetza bide honetan Urkotronik eta Fagor Healthcare enpresak izan ziren ai!ene kooperatibaren lehen bezeroak eta esan daiteke lortutako emaitzekin gustura daudela, bi enpresekin elkarlanean jarraitzen baitute.

Zorte on Jone eta Aitor!

Mugikortasun elektrikorantz aurrera eginez

THE OX RIDERS, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO LEINN GRADUAN ERATUTAKO TALDEAK MUGIKORTASUN ELEKTRIKOKO PROIEKTU BAT GARATU DU ETA LEHENENGO ALEAK 2021ETIK AURRERA BANATZEN HASTEAN AURREIKUSTEN DUTE.



The OX Riders taldea bere produktua kaleratzear dago.

Enpresagintza Fakultatea | Adrián González (CEO), Valeria Valverde (COO) eta Martín Fernández (CMO) The OX RIDERS talde sustatzailea osatzen dute; Mondragon Unibertsitatean LEINN gradua ikasten zuten bitartean sortutako proiektua. Bertan bere diseinuetan eman zuten, prototipoak egin zituzten eta modeloaren 3D inpresioa egin zuten, motozikleta komertzial bat eraldatuz eta elektrifikatuz. EEVAM taldearekin elkarrekin ostan, proiektua hurrengo urtearen hasieran merkaturatzea aurreikusten dute. Ekintzaile taldeak proiektua Unibertsitatearen babesean sortu zela dio eta momentu oro laguntza jaso zutela azpimarratzen du.

'OX Motorcycles' proiektua produktu ezberdin baten apustu moduan irteten da merkatura, teknologia karga altu batekin eta aurretik mugikortasun elektrikoan inoiz ikusi gabeko estilo batekin. Taldearen esanetan, eco motor batek ez dio arauak desafiatzeko estilo apurtzaile bati uko egin behar, beraz dagoen eskaintza murriztuari alternatiba bat eskaintzen diote. Horregatik, OX Riders taldeak armazoa, karga teknologikoa eta batera erauzgarria nabarmentzen

ditu, etorkizuneko hirietarako prestatuta dagoen motor honetan.

Abangoardia teknologikoko proiektua

OX motorrek interkonektatutako teknologia serie bat ezartzen duen Smartbox izeneko sistema bat dute eta honek uneoro ibilgailuko eta inguruko egoera ezagutu eta komunikatzeko aukera ematen du. Gertutasun-sentsoreek, esaterako, denbora errealean

360ºko mapaketa egiten dute motozikletaren inguruan, dagokion aldetik modu arriskutsuan hurbiltzen den ibilgailuaren berri ukabileko bibrazio bidez abisua eman. Erabiltzaileak trafikoaren informazioa jasotzeko teknologia ere badauka, baita eguraldia, jakinarazpenak eta beste aukera batzuk. Hortaz gain, erorialdi edo istripu baten kasuan abisu sistema bat ere badauka.

Horrekin guztiarekin, 2021ean irtengo da produktua merkatura, publiko guztiari zuzenduta; modelo retro baten bila dabilzan nostalgikoetatik, scooterretik alde egin nahi duten motor elektriko baten bila dabilzan gazteetaraino.

Sukaldeari buruzko zinema

'CULINARY CINEMA'AREN HAMARGARREN EDIZIOAK GASTRONOMIAREKIN ZERIKUSIA DUTEN LAU PRODUKZIO ETA SONA HANDIKO 12 CHEF-EK ESKAINITAKO AFARIAK ESKAINI ZITUEN.

Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea

'Culinary Zinema', zinea eta gastronomia uztartzen dituen Donostiako Zinemaldiko atalak hamargarren edizioa izan zuen irailak 21 eta 24a bitartean. 'Culinary Cinema 2020'aren baitan gastronomiarekin zerikusi zuzena duten historiak kontatzen dituzten lau produkzio aurkeztu ziren.

ARZAK Since 1897 izan zen jaialdiari hasiera emateko ardura izan zuen pieza. Asier Altunak zuzendua, Juan Mari Arzak eta bere alaba Elenaren jatetxeari buruz ekoiztutako dokumentala dugu hau.


Honez gain, proiektatutako gainontzeko hiru luzemetraiak Angel Parraren *Camí lliure / Free Way*, Óscar Bernàcer-en *La receta del equilibrio* eta Michael Dweck y Gregory Kershaw-en *The Truffle Hunters* izan ziren.

Zinema dastatzeko afariak

Pelikula bakoitzaren proiektzioa filmarekin zerikusi zuzena zuen afari batekin arindua izan zen. Gauzak horrela, irailaren 21eko irekiera afaria. *ARZAK Since 1897* filmari zegokiona, Arzak-en ikasi eta lan egindako 7 chef ospetsuk prestatu zuten (Yolanda León y Juanjo Pérez, Pablo González, Xabier Diez, Bruno Oteiza, Xanty Elías y Fernando Bárcena).

Irailaren 22ko afaria Ricard Camarenaren esku geratu zen, 2018an Gastronomía Sari Nazionala irabazitako sukaldaria alegia, eta 23koa Edorta Lamo, Óscar García eta Andrea Tumbarillok eskaini zuten.

Jaialdiaren ospakizunean zehar espazio seguru bat eratze aldera, afari guztiak COVID-19aren aurka garatutako segurtasun protokolo zorrotz bat jarraitu behar izan zuten. Horretarako, afarietan parte hartu zuten profesionalek babesgarri EPI espezifikoak eraman zituzten, gel hidroalkoholikoa eskuragarri jarri zen espazio ezberdinetan eta bertaratu-takoentzat sarrera fluxu ezberdinak antolatu ziren.



'Culinary Zinema' ren hamargarren edizioaren kartela.

Aldaketen aroan murgildurik

XAXI HOBIAGUE ETA JENOFA PARACHU IPARRALDETIK BILBORA MUGITU DIRA MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN HUMANITATE DIGITAL ETA GLOBALAK GRADU BERRIA IKASTERA.



Xaxi Hobiague eta Jenofa Parachu Bilboko hiriaren ikuspegia atzean dutelarik.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Herritik hirirako trantsizioak beti urduritasuna sortu ohi du, are gehiago trantsizio hau Iparraldetik Hegoalderakoa bada. Hori da hain zuzen Xaxi Hobiaguek Barkoxetik (Zuberoa) eta Jenofa Parachuk Itsasutik (Lapurdi) egin duten ibilbidea. Honi buruz hitz egin dugu beraiekin.

Zer moduz arizarete bizitzen lekualdatze hau? Jenofa Parachu: Herritik hirira egiten den aldaketa beti da handia, eta are gehiago hau Iparraldeko herri batetik Hegoaldeko hiri batera egiten denean. Hala ere momentuz egokitze hau bikain darماغu.

Xaxi Hobiague: Elkarrekin bizi gara unibertsitateak aurkitzen lagundu

zigu pisu batean, Arangoitik. Etxetik Bilbo guztia ikusten dugu, eta nahiz eta paisaia orain arte ezagutzen genuenetik nahiko desberdin izan ez dugu hiriaren zurrunbiloa guztiz nabaritzen. Arangoiti kanpoaldean dagoen auzo txiki bat da beraz nolabait herri antzeko toki batean gaude.

Eta zerk harritu zaituzte gehien aldaketa honetan?

J.P.: Niri euskararen erabilera urriak harritu nau. Uste nuen hizkuntzak presentzia handiagoa izango zuela. Administrazioan tramiteak egiterako unean euskaraz egin ahal izan dugu, baina komertzioetan adibidez gaztelania gailentzen dela ikusi dugu. Nik gaztelera ulertzen dut eta Xaxik nik baino gehiago hitz egiten du,

baina oztopo bat izan daiteke.

X.H.: Bai, egia esan gaztelania zertxobait menderatzea beharrezkoa da. Besteak beste Graduan izena eman ahal izateko Espainiako Hezkuntza Sistemak alta eman behar izan dugu, eta laguntza jaso arren oztopo ezberdinak aurkitu ditugu egia esan.

Abentura hau borobiltzeko, Gradu berri bat ikastera mugitu zarete.

X.H.: Hala da bai, Humanitate Digital eta Globalak gradu ko lehen promozioa gara, eta oso motibaturik gaude.

J.P.: Iparraldean unibertsitatean euskaraz Euskal Filologia soilik ikasi daiteke Baionan, eta nik euskaraz ikasten jarraitu nahi nuen, beraz

Hiri berri gradu berri bat

Xaxi eta Jenofa Humanitate Digital eta Globalak gradu berria ikastera mugitu dira Bilbora, Gradu berri honek Giza Zientziak eta Humanitateak beste modu batez esperimentatzeko gonbitea luzatzen dio ikasle-goari, erronketan oinarrituta eta enpresa zein erakundeekin elkarlanean arituz fenomeno sozialetan sakontzea baita honen helburua. Graduaren kontzeptualizazioan nabarmentzekoak dira eragile sozialekin eskuz esku erronketan oinarritutako metodologia aktiboak; Nazioarteko egotaldiak, azken joerak eta adituen bisitak; Praktikak eta proiektuak enpresa eta erakunde digital eta globaletan edota Banakako tutoretzak, autozagutza zein ibilbide propioaren diseinua. Gradu berri hau Bilboko Zorrotzaurre uharterako espazio berri eskainiko da 2020/2021 ikasturteko aurrera, Bilboalde guztian erronkak aurrera ateraz hiria ikasge-la bihurtuko duelarik.

Hegoaldean zeuden aukera ezberdinak aztertzen hasi nintzen, eta gradu hau oso interesgarri ikusi nuen, bai eduki zein metodologia aldetik. Etorbizunean Iparralde eta Hegoaldearen arteko harremana sendotzen lan egitea gustatuko litzaidake, eta horretarako gradu hau baliagarri ikusten dut.

Gainera laster AS FABRIK espazio berria ezagutuko duzue.

X.H.: Bai. Ni bertara hurbildu naiz jada eta egia da itxura oso ona hartzen ari dela. Momentuz Zabalguneko plazako gela batean gaude eta urtarrilean mugituko gara bertara. Uharte honen berreraikitzearen eta ondorioz Bilbo bezalako hiri baten eraldaketaren parte izatea oso erakargarria da biontzat.

'El Vaskito' erritmo bereziz

IÑAKI AZKUE, BASQUE CULINARY CENTERREKO IKASLE OHIAK DONOSTIAKO OSTALARITZA ESZENAN TOKI BAT EGITEA LORTU DU. GASTRONOMIA EGITEKO MODU PROPIO BATEN ALDE APUSTUA EGINEZ.

Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea | Nola okurritu zitzaizun El Vaskito irekitzea? BCCnikasten nenenbilenetik zerbait propioa montatzeko asmoa nuen. Karrera bukatzerakoan Getariako 'Elkano' jatetxean lanean hasi nintzen, eta gero nire osabak Baqueirako estazioan duen jatetxean ardura hartu nuen. Esperientzia hori nahiko ondo irten zen eta neguko denboraldia bukatzerakoan jauzia egiteko prestikusten nuen nire burua, beraz Donostiara itzuli eta dena martxan jarri nuen.

Konpetentzia ez zaizu faltako ba Donostian. Bueno, egia da gastronomia eskaintza zabala dagoela hirian. Horregatik uste dut arrakastaren gakoa ez dela gainontzekoekin lehian aritzea, baizik eta zure espazio propioa sortzea. Guk adibidez jatetxe familiar baten aldeko apustua egin genuen, hurbilekoa, non gure bezeroak ezagutuko ditugun eta beraiek gu. Gure lokalak arima izatea bilatzen dugu.

Eta horretarako karta ezinbestekoa. Zer eskaintzen diozue publikoari?



'El Vaskito', karta egunero aldatzen den jatetxe bat.

Karta egunero aldatzen duguguk. Eskuz egina dago eta inguruak eskaintzen dugunaren arabera aldatzen dugu, produktua ezinbestekoa baita. Produktu onenarekin egiten dugulan, bai itsaso zein mendikoa. Gainera, hirian gelditzen diren arrain arasa gutxietako bat dugu, itsaski haztegi bat eta haragia ere ikusgai.

Bestalde, konfinamendua eta gero 'Oilo Toki' jatetxea ireki dugu aurreko lokalean. Jatetxe kontzeptu ezberdin bat du honek, publiko gazteago bati zuzendua. Hemen batez ere oilaskoa eskaintzen dugu bertan jan edo etxera eramateko, eta horrez gain ogitarteko edo hanburgesa bezalako bestelako janaria.

Orain arte bizitakoaren zer nolako balantzea egingo zenuke? Bueno, esango nuke oraindik gure tokia hartzen arigarela. Lehen kolpeajaso dugu jada eta baita lehen akatsak egin. Hala ere dena da baliagarria ikasi eta hobetzen jarraitu ahal izateko. Horrenbestez, orain arte esperientzia oso positibotzat jotzen dut, eta naiz eta etorkizuna ziurra ez izan, ikasten jarraitzeko asmoa dut.

Kooperatzen ikasiz

GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO IKASLE KONTSEILUAK 2019-2020 IKASTURTEAN AKTIBITATE KULTURA EKINTZETAN ERABILI EZIN IZAN ZUTEN 15.900€KO DIRU-POLTSA MUNDUKIDERI DONATU DIO.



Goi Eskola Politeknikoko Ikasle Kontseiluko kideak.

Goi Eskola Politeknikoa | COVID-19 gaitzak beste hainbat esparrutan bezala eragin zuzena izan du Goi Eskola Politeknikoko Ikasle Kontseiluak 2019/2020 ikasturterako landutako programan, hau bertan behera utziz. Martxotik ikasturte bukaerara bitartean egiteke zeudenak ezin izan ziren antolatu, eta honek ikasturte hasieran prestatutako aurrekontuan soberakina izatea ekarri zuen. Besteak beste, San Pankrazio jaierarako bideratutako 15.900 euroko poltsa erabili gabe geratu zen, eta Ikasle Kontseiluak diru honekin zer egin erabaki behar izan zuen.

Konfinamendu garaian hartu behar zen erabakiak aukera ezberdinak jarri zituen mahai gainean, eta hauen artean ikasle batek egindako planteamendua aintzat hartu zen: soberan zegoen dirua ongintzara bideratzea, donazio bat egitea, alegia. Beste proposamen batzuk ere egon ziren, baino koiziente izanik hainbat hilabetetan ezingo zirela pertsona kopuru handientzako ekitaldiak antolatu, deuseztatu egin ziren. Donazioaren proposamenak

aldiz, ikasle ordezkarien babesa izan zuen. Uztaila bukaeran, donazioa Mundukide Kooperazio Kooperatibara bideratzea erabaki zen, hurbiltasun geografikoa eta erakunde txiki baten diru kantitate horrek izan dezakeen inpaktua aintzat harturik.

Proiektu ezberdinei begira

Gaur egun Mundukide bost proiektu solidario ditu martxan, nagusienak Brasil, Kolonia eta Mozambiquen aurkitzen direlarik, dirulaguntzaren muin nagusia jasoko dutenak alegia. Hala ere, Mundukidetik azpimarratu dutenez, oraindik erabakitzeko dago zertara bideratu ikasleen donazioa, beraz diru kopuru hau 2021eko aurrekontu orokorretan sartuko dute, aurrerago definituz erabilpen konkretua. Horrez gain, ikasleen eta Mundukidaren arteko harremanak aurtengo ikasturtean zehar ere jarraituko du, besteak beste proiektu honi buruz unibertsitatean hitzaldi bat ematea aurrekusten baita.

Goi Eskola Politeknikoko Ikasle Kontseiluak kooperazio eredu garbia eman du ekimen honekin. Eskerrik asko eta jarraitu horrela!

Jarduera fisikoak nerabeen errendimendua hobetu dezake

EZOHIKO EGOERA BETEAN, HILABETEETAN ETENDAKO MARTXA BERRESKURATU ETA IKASTURTE KORAPILATSU HONI HASIERA EMAN DIO UNIBERTSITATEAK, ETA PIXKANAKA HASI DIRA GUREAN DIREN IKASLEAK UNIBERTSITATEKO KLASE ETA LAN ERRUTINETARA EGOKITZEN.



Kirol Zerbitzuak ahaleginak egin ditu ezaugarri berezietara egokitzeko.

Kirola | Jarduera fisikoak errendimendu akademikoan duen eragin positiboa aztertu dute ikertzaile askok, eta ebidentziek erakusten dute lotura dagoela ariketa fisikoaren eta errendimendu akademiko eta ikasgelako jokabide hobe baten artean. Izan ere, jarduera fisiko aerobikoak, zelulen osagai eta garuneko molekula batzuen estimulazioa areagotzen du, honek ikasketa prozesuan eragina izan dezakeelarik.

Munduko Osasun Erakundeak (MOE) gomendatzen du 5-17 urte arteko nerabeek bataz beste egunean 60 minutuko intentsitate bizi edo ertaineko jarduera fisikoa egin beharko luketela. Eta, 18 urtetik aurrerakoek, unibertsitateko balizko etapan, astean gutxienez 150 minutuko jarduera fisiko aerobiko moderatua edo intentsitate bizian gutxienez 75 minutuz jardutea gomendatzen da. Jarduera fisikoak dituen ageriko onurez gain, honen praktikak intentsitate moderatuan izanda ere formakuntza aldiaren dauden horiei abantaila handiak ematen dizkie.

MOEk gidatutako azken ikerketak agerian utzi du gazteen egoera tamalgarría, gazteen %80ak ez baitu gutxienezko jarduera fisikorik egiten. Arazo honen aurrean, sedentarismoa eta jarduera fisiko eza, martxan jarri dira ekimen publiko ugari, beste batzuen artean, Mugiment egitasmoa, euskal gizarte aktiboa lortzea helburu duena eta Mondragon unibertsitateak bat egin duena.

Jarduera fisikoa egunero-egunero egiten duten ikasleek aurre egin diezaiekete etapa honetan jasan dezaketen estresari eta antsietateari; izan ere, askotan, azterketa edo lan karga handiko aldia, tentsio handiko uneak izan ohi dira ikasleentzat. Antsietatea, estresa eta depresioa kontrolatzeak lotura zuzena du kirol errutina bat edukitzearekin. Hori dela eta, Mondragon Unibertsitateko kirol zerbitzutik, COVID19aren aurrean jarduteko protokolo zehatza eta osasun berme guztiak jarraituz, ikasleei unibertsitateko egunerokotasunarekin bateragarria izan dakieken kalitatezko jarduera programa eskaintzen diegu. Unibertsitatean bertan aukera izan dezaten jarduera ezberdinetan trebatu, sozializatu eta deskonektatzeko.

Poztasunez ekin

EIDER ETXEBARRIA ETA BEATRIZ SANTAMARÍA, BIZIPOZ KOOPERATIBAREN SORTZAILEAK ETA LEINN GRADUKO IKASLE OHIAK ETORKIZUNEAN KONTUAN IZATEKO EKINTZAILE GAZTE GARRANTZITSUENEN ARTEAN KOKATZEN DIRA.



Etxebarria eta Santamaria ekintzaileak.

Enpresagintza Fakultatea | Eider Etxebarria eta Beatriz Santamaría Bizipoz kooperatibaren sortzaileak dira, diseinuaren bitartez pertsona nagusien ahalduntzea erraztu eta gaur eguneko errealitatearen baitan zahartze aktiborako programak sortzen dituen kooperatiba. Pertsonen bizi itzaropena geroz eta luzeagoa da, eta urte hauetan kalitatezko bizimodua izatea garrantzitsua da. Hori dela eta, zahartze aktiboa kontuan izan beharreko kontzeptu bat da.

Bi ekintzaileek proiektua Mondragon Unibertsitatean LEINN Gradua ikasten zeuden bitartean jarri zuten martxan, eta 2017an era definitiboan merkatuan jarri zuten. Kalkuluen arabera, Bizipozek gaur egun jada 1000 pertsona ingururengan eragina izan du, gehienbat udalerrri mailan lan eginez, udaletxe edo bestelako erakundeekin elkarlanean.

Influentzia eremua zabalduz

Bizipoz kooperatibak egindako lanak aitortza mediatikoa ekarri die bi ekintzaile hauei, 2019an Espainian lider diren 100 emakumeen rankingean sartuz. Emprendedores atariak eginiko kalkulu baten arabera, Etxebarria eta Santamariaren lanak 1000 pertsona ingururengan eragina izan du, eta zenbaki hau hazteko lanean jarraitzen dute.

Arizmendarrietaren

TXOKOA

Jose Maria Arizmendarrietaren ondarea, filosofia eta baloreak.
Gogoeta liburuxka.

“Jakintza boterea da eta boterea demokratizatzeko aldeztatik jakintza sozializatu beharra dago.” (Gogoetak 193)

“Saber es poder y para democratizar el poder hay que socializar previamente el saber.”

(Reflexiones 193)

Ate irekiak

www.mondragon.edu/eu/unibertsitate-graduak/ate-irekiak

BUSINESS DATA ANALYTICS (BILBAO BBF)

2020-11-14 - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna
2020-12-19 - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna
2021-02-06 - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna

EKOTEKNOLOGIA INDUSTRIALETAN INGENIARITZA

2020-11-14 - Online - 11:00etan - Euskaraz
2020-12-16 - Online - 18:00etan - Gazteleraz
2021-02-06 - Aurrez aurrekoa - Orona Ideo - 11:00etan -Gazteleraz

ENPRESEN ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENDARITZA:

2020-11-14 - Oñati - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna
2020-11-21 - Bidasoa - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna
2020-11-21 - Bilbao BBF - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna
2020-12-12 - Oñati - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna
2020-12-12 - Bilbao BBF - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna
2020-12-19 - Bidasoa - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna
2021-01-30 - Bilbao AS Fabrik - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna
2021-02-06 - Oñati - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna
2021-02-20 - Bidasoa - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna
2021-02-27 - Bilbao AS Fabrik - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna

GASTRONOMIA ETA SUKALDARITZA ARTEAK

2020-12-12 - Donostia BCC - Aurrez aurrekoa - 10:30etan - Elebiduna
2021-01-23 - Online - 16:00etan - Elebiduna
2021-01-30 - Donostia BCC - Aurrez aurrekoa - 10:30etan - Elebiduna

HAUR HEZKUNTZA (ESKORIATZA)

2020-12-12 - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna
2021-01-23 - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna
2021-02-27 - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna

HUMANITATE DIGITAL GLOBALAK (BILBAO BBF)

2020-12-12 - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna
2021-01-23 - Aurrez aurrekoa -

11:00etan - Elebiduna
2021-02-27 -- Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna

IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA (ARETXABAETA) AURREZ AURREKOA
2020-12-12 - 11:00etan - Elebiduna
2021-01-23 - 11:00etan - Elebiduna
2021-02-27 - 11:00etan - Elebiduna

INDUSTRIA ANTOLAKUNTZAKO INGENIARITZA

2020-11-14 - Online - 11:00etan - Euskaraz
2020-12-17 - Online - 18:00etan - Gazteleraz
2021-02-06 - Arrasate - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Gazteleraz

INDUSTRIA DISEINUKO ETA PRODUKTU GARAPENEN INGENIARITZA

2020-11-12 - Online - 18:00etan - Euskaraz
2020-12-12 - Online - 11:00etan - Gazteleraz
2021-01-28 - Arrasate - Aurrez aurrekoa - Gazteleraz

INDUSTRIA ELEKTRONIKAKO INGENIARITZA

2020-11-14 - Online - 11:00etan - Euskaraz
2020-12-16 - Online - 18:00etan - Gazteleraz
2021-02-06 - Arrasate - Aurrez aurrekoa - Gazteleraz

INFORMATIKA INGENIARITZA

2020-11-12 - Online - 18:00etan - Euskaraz
2020-12-12 - Online - 11:00etan - Gazteleraz
2021-01-28 - Arrasate - Aurrez aurrekoa - 18:00etan - Gazteleraz

INGENIARITZA BIOMEDIKOA

2020-11-14 - Online - 11:00etan - Euskaraz
2020-12-16 - Online - 18:00etan - Gazteleraz
2021-02-06 - Arrasate - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Gazteleraz

INGENIARITZA MEKATRONIKOA

2020-11-12 - Online - 18:00etan - Euskaraz
2020-12-12 - Online - 11:00etan - Gazteleraz
2021-01-27 - Bilbao AS Fabrik - Aurrez aurrekoa - 18:00etan - Gazteleraz
2021-01-28 - Arrasate - Aurrez aurrekoa - 18:00etan - Gazteleraz

LEHEN HEZKUNTZA (ESKORIATZA)

2020-12-12 - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna
2021-01-23 - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna

2021-02-27 - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna

LEHEN HEZKUNTZA - BERRIKUNTZA DIGITALA (BILBAO BBF)

2020-12-12 -- Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna
2021-02-27 - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Elebiduna

LIDERGO EKINTZAILEA ETA BERRIKUNTZA (AURREZ AURREKOA)

2020-11-07 - Bidasoa - 11:00etan - Elebiduna
2020-11-07 - Oñati - 11:00etan - Elebiduna
2020-12-05 - Oñati - 11:00etan - Elebiduna
2020-12-10 - Bilbao BBF - 18:00etan - Elebiduna
2020-12-12 - Bidasoa - 11:00etan - Elebiduna
2021-01-21 - Bilbao BBF - 18:00etan - Elebiduna
2021-01-23 - Bidasoa - 11:00etan - Elebiduna
2021-01-28 - Oñati - 17:30etan - Elebiduna
2021-02-27 - Oñati - 11:00etan - Elebiduna
2021-02-27 - Bidasoa - 11:00etan - Elebiduna

MEKANIKAKO INGENIARITZA

2020-11-14 - Online - 11:00etan - Euskaraz
2020-12-17 - Online - 18:00etan - Gazteleraz
2021-01-28 - Goierri - Aurrez aurrekoa - 18:00etan - Elebiduna
2021-02-06 - Arrasate - Aurrez aurrekoa - 11:00etan - Gazteleraz

Azaroa

Goi Eskola Politeknikoa

- EXPERTO EN LOGÍSTICA INTEGRAL 27/10/2020
- MÁSTER EN DIRECCIÓN DE PRODUCCIÓN (XXIX EDICIÓN) 19/01/2021
- DELEGADO DE PROTECCIÓN DE DATOS (DPO) 22/01/2021
- IMPLANTA LA GESTIÓN DE PROYECTOS Y PORTFOLIO CON KANBAN PARA CONSEGUIR PROYECTOS EN PLAZO 01/02/2021
- AVANZADO EN GESTIÓN DE PROYECTOS 01/02/2021
- AVANZADO EN GESTIÓN INDUSTRIAL (GOIERRI) 17/02/2021
- CURSO AVANZADO GESTIÓN INDUSTRIAL (GOIERRI) 17/02/2021
- EXPERTO EN GESTIÓN DE PROYECTOS 24/02/2021
- AVANZADO EN GESTIÓN DE MANTENIMIENTO (XIX EDICIÓN) 03/03/2021
- LEAN MANUFACTURING (ONLINE) 08/03/2021
- EMPRESA ÁGIL: CONOCE A TU CLIENTE, DISEÑA TU IDEA DE NEGOCIO Y LÁNZALA CON EL ESFUERZO Y LA INVERSIÓN JUSTAS 14/04/2021
- EXPERTO EN DIRECCIÓN DE COMPRAS 02/07/2021

Otsaila

Enpresagintza Fakultatea

MBA EXECUTIVE - BILBAO: FEBRERO 2021

- MÁSTER EN COACHING: Febrero 2021
- EXPERTO EN DIGITALIZACIÓN ORIENTADA A CLIENTE: Febrero 2021
- EXPERTO EN GESTIÓN DE PERSONAS Y FUTURO DEL TRABAJO: Febrero 2021
- EXPERTO EN CAPITAL RIESGO Y STARTUPS: Febrero 2021
- EXPERTO EN MARKETING DATA ANALYTICS: Febrero 2021
- DIPLOMA DE ESPECIALIZACIÓN EN MARKETING DIGITAL: Febrero 2021
- DIPLOMA DE ESPECIALIZACIÓN EN LIDERAZGO: Febrero 2021

BIZUMekin

ordaintzen baduzu,
FLOWa duzu

Lagunen arteko opari bat, taxi bat, sarrera batzuk...

LK Payrekin dirua bidali eta jaso dezakezu doan, mugikorretik mugikorrera, zure kontaktuen artean. Erraz, azkar eta seguru. Hau da, FLOW handiarekin.

Deskargatu LK Pay appa, Bizum aktibatzeko:



LK Pay



bizum




LABORAL
kutxa